

IRAKASKUNTZA. Euskal hezkuntza sistema bat modu praktikoan bultzatzeko helburua izango du herri ekimenak

Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimen gisa eratuko da

Martxoaren 23an egingo du mugimendu berriak bere sortze batzarra, Altsasun

Iker Aranburu | DONOSTIA

Urriaz geroztik euskal hezkuntza sistema propioa aldarrikatu duen Euskal Herriak Bere Eskola kanpainak izaera aldatu eta herri mugimendu gisa antolatuko da. Herri ekimen berria martxoaren 23an egingo du sortze batzarra, Altsasun (Nafarroa).

Kanpainako zerbait ordezkarik atzo eman zuten asmoaren berri, Donostian. Ekitaldi horretan Igor Arroyok azaldu zuenez, azken hilabeteotako kanpainaren ondoren ikusi dute baldintzak badaudela herri ekimena sortzeko eta, horregatik, «izozkailuan genuen ideia atera eta gauzatzea» erabaki dute.

Urrian hasitako kanpainarekin «nahiko pozik» zeudela azaldu zuen Arroyok. Haren arabera, ehunka ikasle, irakasle eta guraso bildu dira euskal hezkuntza sistema propioa sustatzeko helburua zuten lan taldeetan. 37 herritan eta Hego

Euskal Herriko lau hiriburueta-ko 24 auzotan sortu dira lan taldeak. Hegoaldeko beste herrietara edo eskualdeetara ez ezik, Lapurdia, Nafarroa Beherera eta Zuberoara ere hedatzeko asmoa dute.

Gotzon Etxarrik azaldu zuenez, Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimena tokian tokiko ekimenez osaturiko koordinazio nazionala izango da. Herri, auzo edo eskualde bakoitzak bere beharrak eta egitekoak erabakiko ditu, eta koordinazio nazionala arduratuko da talde desberdinen arteko elkarlanaz eta elkar trukea antolatzeaz. «Herri eta auzo bakoitzeko beharretatik abiatuta, lan praktiko bat egiteko asmoa dauka; Euskal hezkuntza sistemaren aldarrikapena helburu zehatz eta lorgarrien bidez landu nahi du», esan zuen.

Onartu egin zuen Etxarrik desberdinak direla sare publikoaren eta pribatuaren beharrak edota hiri batekoak edo he-



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Euskal Herriak Bere Eskola kanpainako kideak, atzo Donostian, herri ekimenaren berri ematen.

HELBURUAK

Herri eta auzo bakoitzeko beharretatik abiatuta, lan praktikoa egiteko asmoa dauka Euskal Herriak Bere Eskola ekimenak

ri batekoak. Hala ere, guztiek problema komunak dituztela adierazi zuen, esaterako, «balazta moduan aritzen den A ereduak —eta batzuetan B ereduak ere bai—».

Martxoaren lehen hamabostaldian, eskualdeka dozena bat batzar egingo dira, kanpainaren

balorazioa egiteko, eta antolatzeke zein baldintza dau den ikusteko. Garbiñe Elorriagak esan zuenez, batzar horietako ekarpenak bilduko dira Altsasuko batzarrean, herri ekimena antolatuko da, eta hurrengo hilabeteetarako planingintza proposatuko.

Deialdi irekia

Eskualdeko batzarretan eta nazionalean parte hartzeko deia egin zien Elorriagak ikasle, irakasle, guraso eta hezkuntzan interesa duen edonori. Izan ere, Euskal Herriak Bere Eskola kanpainan parte hartu dutenek uste dute herri ekimena dela bide egokiena euskal hez-

kuntza sistemaren aldeko borroka egiteko. Izan ere, Arroyok ziurtatu zuenez, hezkuntzak «balio estrategikoa du, areago bere burua berreraiki nahi duen Euskal Herriaren kasuan, belaunaldi berriak baitira geroa».

Orain arte erdietsitakoa, «herri mugimendu aberatsari» zor zaiola ziurtatu zuen Arroyok eta, hortaz, urrats berriak ere herri ekimenaren eskutik etorriko direla gehitu zuen. Hainbat eragile lanean ari direla onartu zuen, baina dinamika «praktikoa eta iraunkorra» izango duten herrietako eta auzoetako taldeen beharra azpimarratu zuen.

UNIBERTSITATEA. LABek zorrotz salatu du Parlamentuak Herri Ekimen Legegileari jarri betoa, eta azalpenak eskatu dizkio Iztueta

Jaurlaritzak lege propioa egiteko borondatea ez daukala ondorioztatu du Uniekimenak

Luis Karlos Garcia | GASTEIZ

Eusko Jaurlaritza osatzen duten alderdiek —EAJk, EAK eta EB-IUK— unibertsitate lege propioa garatzeko benetako borondaterik ez daukatela ondorioztatu du Uniekimenak, behin ikusi ondoren Legebiltzarreko Mahaiak Euskal Herrirako unibertsitatearen aldeko Herri Ekimen Legegilearen proposamena atzera bota duela.

«Erabakia ikusita, argi da hirukoak ez duela inongo borondaterik hezkuntza alorreko eskumen apurrik garatzeko. Ustel bihurtu dira, beraz, Anjeles Iztueta sailburuak legedi propioaren alde esanak», salatu zuen Uniekimenaren bultzatzaile Iñigo Santxok, atzo, Legebiltzarreko prentsaurrekoan.

Santxok jakinarazi zuen Parlamentuko Mahaiaren erabakia aho batez hartu zela (eserleku bana dute EAJk, EAK, EB-IUK, PPK eta PSEk). Taldeok guztiok «galbahe konstituzionalaren berme» gisara jokatu dutela erantsi zuen.

Uniekimeneko eledunaren arabera, Legebiltzarrak proposatutako testuari buruz egin zuen txosten juridikoan onartu zen aurrera egiteko aukera juridikoak bazirela eta, nolahi ere, zalantza izanez gero, Herri Ekimen Legegilearen alde egin behar zela. «Mahaiak, ordea, interpretaziorik hertsiena hobetsi du proposamenari ezezkoa eman ahal izateko», kritikatu zuen Santxok.

Uniekimenak adierazi zuen aurkeztutako testuak berariaz-

ko «anbiguotasun neurtua» zeukala, hain zuzen, aurrera egin ahal izan zezan.

Herri Ekimen Legegilearen sustatzaileek babes helegitea aurkeztuko dutela iragarri zuten.

EGUNKARIA behin eta berriz saiatu da azken bi egunotan Hezkuntza Sailaren edo EAKo talde parlamentarioaren iritzia jasotzen, baina ez du ezer ere lortu.

LABi «sekulako kezka» eragin dio hirukoak egindakoak

Gainera, LAB-Unibertsitateak ere zorrotz salatu du «erakundearen lehendabiziko ebazpena erabat aurkakoa» izan dela, nahiz eta azkenaldion legedi propioa garatzearen alde makinan bat adierazpen egin den. Sin-



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Iñigo Santxo eta Arantza Urkaregi Uniekimeneko kideak, atzo.

dikatuak «sekulako kezka» agertu du atzo bidalitako prentsa-oharrean, areago Legebiltzarreko Mahaiaren, besteak beste, Jaurlaritzako gobernuak direla jakinda.

LABek azalpenak eskatu dizkio Iztueta sailburuari, eta, dena den, «ekimenak plazaratzeko garaia» dela gogorarazi dio Euskal Herriko Unibertsitate komunitateari.